

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

357 zb.
www.getxo.eus

>> 2021eko Ekaina

Nabarmen^{tzekoak}

> Iker Gonzalezen "Creyente"-k irabazi du Wanted programaren azken deialdia

> "Oilarren batailak"

> Uda Solidarioa 2021 Boluntaren eskutik



Uda Solidarioa 2021 Boluntaren eskutik

Boluntak, boluntariotzarako eta parte-hartze sozialerako agentziak, prestakuntza-saio bat antolatu du, online, datorren ekainaren 15erako, 15:00etan, zoom bidez, uda solidarioa igaro nahi duten pertsonentzat. Agentziak, hainbat erakundek eta gizarte-erakundek sustatutako ekimen solidarioak biltzen ditu, horietan parte hartu eta bestelako uda batez gozatu ahal izateko. Argibide gehiago eta inskripzioak: <https://bolunta.org/bategin-verano-solidario/>

Getxoko Gazteria Zerbitzuaren informazioa Facebook-ekin ikus dezakezu.

Adi egon!!! Beste orri batean gaude orain

Jarraitu iezaguzu hemen: <https://www.facebook.com/GetxoGazte-105704181683887>

Ez galdu argitaratzen ditugun berritasun guztiak!

BEKAK SARIAK

* **Trebetasun digitalen arloko 50 prestakuntza-beka**, Huawei deituak, Telekomunikazioen Ingeniaritzan, Informatika Ingeniaritzan eta antzeko titulazio teknikoetan matrikulatutako unibertsitate-ikasleentzat. Online egingo dira, eta hautatuek prestakuntza-beka bat jasoko dute, zuzeneko prestakuntza-saioz osatua, bai eta Huawei diseinatutako ikastaroetara sartzeko beka ere, Huaweiaren iLearningX plataformaren bidez, uztailaren 19tik 26ra. Izenemateak: uztailaren 1eko 09:00ak arte. Argibide gehiago: <https://bit.ly/3wDxVSJ>

* **25 Santander Praktikak | Connecting Talent beka**, Carlos III.a Unibertsitatea Fundazioak deituak Santander Bankuaren laguntzarekin, beren enplegagarritasuna hobetu eta lan-merkatuan profesionalki garatu nahi duten ikasle eta gazte graduatuentzat. Programak bi modulu osagarri izango ditu: irakaskuntzako eta praktiketako, irailaren 6tik abenduaren 22ra. Izena emateko epea: ekainaren 14ra arte. Argibide gehiago: <https://bit.ly/3vBah9G>

* **Acnur, Gazteak Errefuxiatuekin Arte Lehiaketa**, 10 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. Edizio honetako gaia **Kirolak batzen gaitu** da, eta kirolak pertsonak batzeko eta itxaropena sortzeko duen boterea ikusaraztea da helburua. Ilustrazio bat bidal daiteke eta #balonsoñado (#dreamball) diseinuaren lehiaketa honetan parte hartu. Diseinurik onenak futbol-baloietan erabiliko dira, eta horiek errefuxiatuentzako kirol-jarduerei laguntzeko salduko dira. Lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 25a da. Argibide gehiago: <https://bit.ly/3c0ng4b> eta youthart@unhcr.org

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Ekaina

Hilak 5, larunbata: IRTEERA: KNS

Hilak 8, asteartea: EKINTZA: INGURUMEN EGUNA

Hilak 11, ostirala: TAILERRA: ELEKTRIZITATEA

Hilak 17, osteguna: SUKALDARITZA: ZUKUA

Hilak 19, larunbata: IRTEERA: GUGGENHEIM

Hilak 23, asteazkena: TXAPELKETA: FUTBOLIN

Hilak 25, ostirala: EKINTZA: FILMAK

Hilak 29, asteartea: TAILERRA: NEZESER MARGOTU

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Ekaina

Hilak 7, astelehena: MASTER CHEF: FRUTAZKO IRABIAKIAK

Hilak 9, asteazkena: IRTEERA: SURF

Hilak 15, asteartea: KIROLA: BADMINTON

Hilak 16, asteazkena: JOLASA: EZKUTAKETA

Hilak 23, asteazkena: JOLASA: UR PUXIKAK

Hilak 24, osteguna: ESKULANA: MARRAZKETA MARGO AKRILIKOEKIN

Hilak 28, astelehena: TAILERRA: FINGER SKATE

Hilak 30, asteazkena: TAILERRA: ERAZTUNAK

Iker Gonzalez getxotarrak zuzendu eta idatzitako fikziozko film laburra da, apaiz gazte baten istorioa kontatzen duena

“Creyente”-k irabazi du Wanted programaren azken deialdia

Creyente da Wanted programaren azken deialdia irabazi duen proiektua. Sustapen Ekonomikoaren eta Gazteriarren arloek deitutakoa da Wanted, gazteek garatutako proiektuei laguntzeko, finantzaketarik, aholkularitza teknikorik, orientaziorik eta abarrik ez dutelako, eta beraien proiektuak errealitate bihurtzeko zailtasunak dituztelako. Fikziozko film labur hau Iker Gonzalez getxotarrak zuzendu eta idatzi du, Adriana Roloso soinu buru duela.

Bere bizitza erlijio katolikoa-ri eskaini dion apaiz gazte baten istorioa kontatzen du filmak, hura baita bere errealitate ezagun bakarra, gaztearen bizitzak ustekabeko bira txiki bat ematen duen arte. Une horretan ezagutuko ditu beste errealitate batzuk, lehen baloratu ere egin ez zituen gaiak birplanteatuz.

Iker Gonzalezek berak aitortu duenez, *“ilusio handiz sortutako proiektua da eta erlijioaz ez ezik, nolabait maitasun istorio bat ere bada. Ikusleei historia honen berri eman nahi zaie, eta ikusleek beren sinesmenei, printzipio moralei eta ingurukoekin dituzten harremanei buruz hausnar dezaten bildu nahi dituzte”*.


Film labur hau aurrera eramateko jaso duen saria 10.000 eu-

Udan beste behin... Interrail

Udan European zehar Interraila erabiliz bidaiatzea urtero gazte askok erabiltzen duten eskaintza da. Aukera horri esker, herrialde bat baino gehiago ezagutu ahal izango dugu, edo gure porrak herrialde bakar batean igaro, guzti hori gehiezin ere 30 egunetan. Bi txartel mota daude: *Global Pass* (30 herrialde arte bisitatzen dira txartel horrekin) eta *One Country Pass* (28 herrialde arte bisitatzen da). Lehenengoak, aukera ematen du inoiz baino askatasun handiagoa izateko Baimen mugikor batekin, zure telefonora bidalita; orain eros dezakezu eta 11 hilabete igaro arte bidaiatu, eta ez duzu hasiera-datarik aukeratu behar bidaiatu arte. Bigarrenak, bi herrialdetan bidaiatzeko aukera eskaintzen dizu, bi *One Country Pass* konbinatuta.

27 urte edo gutxiago badituzu, Interrailekin egiten duzun bidaiaren lehen egunean, txartela deskontuarekin eros dezakezu; 1. eta 2. klaseetan balio du. Adingabeentzat ere deskontuak daude, familian bidaiatzen baduzu.

Informazio guztia eta prezioak webgune ofizialean daude: <https://www.interrail.eu/es>. Orriak COVID-19aren murrizketei eta herrialde bakoitzeko arauak buruzko informazioa du.



rokoa izan da, baina oraindik ez du estreinaldirako datarik eta behar bezala iragarriko da. Oraingo honetan, lehiaketara aurkeztu ziren zazpi proiektuetatik aukeratu den bakarra

izan da, eta horiekin tailer bat egin zen.

Inplikaturako zerbitzuak hurrengo Wanted 2021 deialdia prestatzeko lanean ari dira.



“Oilarren batailak”

Larunbat honetan, hilak 5, Romo Kultur Etxeak Oilarren batailak ekimena hartuko du, Charles Viruez, Angela eta Carlos Oyaguren eta Kevin Cuellar gazteek antolatua. Gazte horiek, *Area 48* izenarekin, Wanted programaren 2020ko deialdian parte hartu zuten, eta Udalak 3.405 euroko dirulaguntza eman die. Rap txapelketa inprobisatua izango da, eta 16 parte-hartzailek eta gonbidatu berezi batek hartuko dute parte, Botta rap abeslariak. 300 euroko saria duten "batailak" 17:00etatik 20:00etara izango dira, eta sarrera gonbidapen bidez egingo da, pandemiaren murrizketek mugatutako edukierarekin.